

noaua



"ETORKIZUNEAN PARKINSONAREN INTZIDENTZIA ASKO HANDITUKO DA"

Maidar Zubelzu EHUko ikerlariak nazioarte mailako sari bat jaso du / 06



AIURRI

Euskara ikasi nahi duenak aukera eta laguntza ugari ditu Buruntzaldean / 12



NOAUA

Irailaren 17an jokatu da 14. Baxurde Krosa lasterketa / 16




NOAUA

Ikasturte hasiera bizi-bizia izango da Santuenean / 20

Enrike Abril errebote txapelketa martxan da / 22



Iruditan, udako jaiak



munalurra 8, USURBIL

FUNERARIA GONZALEZ EHORZTETXEA

**OCASO, SANTALUCIA...IZANEZ GERO,
HERIOTZA GERTATZEN BADA,
DEITU ZUZENEAN GURE BULEGORA 24H,**
(edo aseguruari gure zerbitzuak eskatu).

MOMENTU LATZETAN GUZTIAZ ARDURATZEN GARA

943 36 21 63 (24 orduz)

·BEILATOKI GUZTIAK · ERRAUSKETAK · LEKUALDAKETAK



www.funerariagonzalez.es

KAM DEN

h i z k u n t z a k

English courses

Matrikulazio epea zabalik

*Klase prezentialak eta online
informa zaitez!*

kamden@kamdenhizkuntzak.com

kamdenusu@gmail.com

www.kamdenhizkuntzak.com

Zubiaurrenea 6 • Tlf 646 94 58 17

Ingeleseko klaseak haur eta helduentzat **LH3tik aurrera**


tobyngana
english SCHOOL

Bertako irakasleak • Matrikulatzea dohainik • **Online** saioak urruti bizi direnentzat
Talde murriztuak • Cambridge azterketen prestakuntza • High level "use your English"



Zatoz lagunekin ondo pasatuz ikastera!

Taldeak irekiak daude datorren kurtsorako

686 499 775 (Toby) • tobyngana@hotmail.com • Alperroburu 2, Usurbil

Baba beltz txikiari gorazarre egin dio kofradiak urtero moduan, kide berriekin



Baba beltz txikiaren kofradiako hainbat kide, Saizar sagardotegi atarian ateratako talde argazkian.

Gustura asko atera dituzte aurten ere babak eltzetik ondoko irudiko lagunek. Duela lau hamarkadatik gora egin duten moduan, abuztuko azken ostegunean elkartu zen Saizar sagardotegian Usurbilgo baba beltz txikiari gorazarre egiten dion kofradia. Jaki hau zuen bazkaria dastatu ostean, iaz iragarritako kofradekide berriari harrera egin

zioten, laiaren laguntzaz. Joxe Mari Korta da aurtengoan zin egin duen kofradekide berria.

2024koa nor izango den ere iragarri zuten; Koldo Lizaso izango da. Ekitaldia, ohiko

txapela eta kapa beltzak jantzita ospatu zuten, ereserkia duten abestia kantatu ostean.

Garbigune mugikorra, Txokoalden

Irailaren 7tik aurrera, garbigune mugikorra Txokoalden izango da. Era honetan, etxeko hondakinen berrerabilpena eta birziklatzea sustatu nahi da. Hondakinak bere horretan bota, poltsarik gabe. Irailaren 14an osteguna, garbigune mugikorra Zubietara eramango dute.

Baterajotzea topaketak badu abestia

Euskal Herriko neska* gazteen topagunea Usurbilen egingo da, urriaren 13tik 15era. "Zu etani utopiak lehertzeragatoz!" abestia kaleratu berri dute. Youtuben duzue entzungai, "Euskal Herriko Neska Gazteak" kanalean. Bestalde, izen-emaiteak zabalik segitzen du ehkoneskagazteak.eus atarian.

Bisita gidatuek segida izango dute irailean

650 Usurbil Bizi egitasmoaren baitan antolatzen diren "Usurbil Museo Irekia" bisita gidatuek segida izango dute hila-bete honetan ere; larunbat eta igande eguerdiko 12:00-13:00 artean. Sutegitik abiatuko dira ibilaldiak. Hori bai, aurrez eman behar da izena, 650usurbilbizi.eus atarian.

Gaztelekua irailaren 11n zabalduko dute

12 urtetik gorako gazteei zuzenduriko zerbitzua astean hirutan zabalduko dute:

- Astelehenetan: 16:30-19:30.
- Ostegunetan: 16:30-19:30.
- Larunbatetan: 16:00-19:00.

Informazio gehiagorako:
gaztelekuausurbil@gmail.com
688 713 838.

noaua

TOKIKOM

Argitaratzailea:
Noaua Kultur Elkarte
Bordaberrí 3, Eguzkitzaldea
20.170 Usurbil
943 360 321
elkartea@noaua.eus

Elkarteko lehendakaria:
Idoia Torregarai.
Aldizkari koordinatzailea:
Imanol Ubeda.
Idazkaria:
Alaitz Aizpurua.

Erredakzio kontseilua:
Aritz Lasarte, Ixaso Orbeagozo,
Imanol Ubeda.
Diseinua: Goiena.
Publizitate arduraduna:
Beatriz Alda.

Tel.: 943-360 321
publizitatea@noaua.eus
Banatzaleak:
Iñaki Irazusta, Iban Maritxalar.
Lege Gordailua: SS-668-96.
ISSN: 1136-6818.

Tirada: 2.980 ale.
Imprimategia:
Antza inprimategia. Zirkuitu
ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.
Harremanetarako:
erredakzioa@noaua.eus



Gipuzkoako Foru Aldundia



Usurbilgo Udala

IRITZIA



LUIS ARANALDE

Kontzientzia fanatismoaren kontra

Miguel Servet eta bere garaiko zenbait intolerantziaren gainean saio bikain bat irakurri berria dut. Gertatzen dena da, nahiz eta intolerantzia klase asko gainditu ditugun, duela bostehun urteko jarrera anitzek indarrean jarraitzen dutela oraindik gure artean. Fanatismoa intolerantziaren sinonimoetako bat eta "fanus" (kriseilua) hitzetik dator; fanatikoak pentsatzen du berak bakarrik daramala egiaren argia, gainerakook ilunpetan gabiltzala.

Hiru protagonista nagusi ditu idazlan eder honek: Miguel Servet, aragoitar humanista, sendagile eta teologoa, Sebastián Castellio, bere defendatzaile sutsua eta Juan Kalbino, Ginebra osoan erreformatzaile protestantea eta tirano beldurgarria; hirurak XVI. mendekoak.

Garai honetan erlijio gerrak astindu zuen Europa osoa. Kalbinok tirania latza ezarri zuen, botere absolutua eskuratu eta bizimodu puritanoa eramatera behartu zituen denak: festa egunak kendu, musika eta artea debekatu eta noski, autoritatearen kontrako kritika guztiak gaitzetsi. Bere agintearen sekretua, historiagile baten esanetan, izua izan zen. Despota honek egiten eta agintzen zuen



"Miguel Servetek aurre egin zion intolerantziari".

guztia Jainkoaren izenean zen, gainera, Jainkoaren interesak defendatzeko. Intolerante honi aurre egin ziona Miguel Servet izan zen. Sendagile eta teologo honek bat egin zuen Eliza erabat berritzea eskatzen zutenekin eta Aita Santuaren hierarkiaren nagusitasunari uko egiten ziotenekin. Parisen egin zituen bere medikuntza eta teologia ikasketak eta gero Lyon lanean jardun. Historiari pasa zen biriketako zirkulazioa aurkitu zuelako. Hirutasun Santuaren dogma ukatzeagatik eta bataioa helduaroan egin behar zela defendatzeagatik, katolikoek nahiz protestanteek kondenatu zuten. Hainbat herrialdetan bizi izan zen inkisizio beldurgarriari ihes

**"FANATIKOAK
PENTSATZEN DU
BERAK BAKARRIK
DARAMALA
EGIAREN ARGIA"**

egin ahal izateko. Kontzientzia askatasunaren eta tolerantziaren aitzindari izan zen Miguel Servet, humanista osoa, erradikala zentzu onean, arrazoimenaren bidez egia bila ibili zena, erreferente etikoa alde guztietatik.

Bere defendatzailea Sebastian Castellio izan zen, hau ere humanista petoa. Kalbinori aurre egin zion. Honek laster bidali zuen erbestera eta bere erreinu ilun hartatik urundu. Kalbinoren kontrako diskurtso horietako batean honela zioen: "Jainkoaren izenean, errespetu ezak nire libertatea eta salaketa faltsuez ez zikindu nire izena. Hik eta nik maitasun konpromisoari eutsi behar zioagu. Gizon bat hiltzea ez duk inoiz dotrina bat defendatzea izango, beti izango duk gizon bat hiltzea".

Handik denbora pixka batera, Kalbinok Servet harrapatu eta atxilotu zuen. Epaiketa labur baten ondoren, herio zigorra ezarri zion eta ez nolana hiko, sutan erretzea. Pentsa zein krudela zen Kalbino, egurrak heze samarra izan behar zuen torturak ahalik eta gehien irauten zezan. A zer psikopata! Orduan eta orain, egiaren jabe absolutua izateak ez dio bizikidetzari mesede egiten, intrantsigentzia edo intolerantzia sustatu baizik.

Aldundiak "interese publikokotzat" jo du Orbeldiko ur biziaren kanalaren egitasmoa

GAO-ren irailaren 1eko argitalpenak azaltzen duenez, "espedientearen xedea da kirol-ekipamendu bat -Ur Bizien Kanala- ezartzeko hirigintza parametroak zehaztea, eta, halaber, Ori ibaiako Orbeldiko presaren inguruko ingurumena hobetzea (ur eta arrantza egoera hobetzea)".

Alegazioak

Ekaina amaieran Eguzkizaleak eta Anerreka elkarteek bi alegazio aurkeztu zituzten. Foru Aldundiarentzat, "alegazioek ez dute inola ere planaren interes publikoa zalantzan jartzen".

Katekesi Taldean izena emateko epea irailaren 11n zabalduko da

Katekesian izen-ematea modu telematikoa egingo da aurtan. Salvatore parrokiatik aditzera eman dutenez, "2. mailatik aurrerako umeak dituzten familiek korreo elektronikoz jasoko dute izen-emate orria eta informazio guztia".

Gaztetxoak katekesiko 1. mailan apuntatu nahi dituzten familiek aldiz, salvatoreparrokia@gmail.com helbidera idatziz edo Parrokiako 943 361 239 telefono zenbakira deituz utz dezakete telefonoa eta izena. "Gu jarriko gara harremanetan familiekin".

- Izena emateko egunak: irailaren 11tik 17ra arte.
- Katekesi saioen hasiera: urriaren 6an.

Okindegia-Gozotegia
LABE-GOXO

txirriStra
· PLATER KONBINATUAK · BOKATAK · PINTXOAK
TABERNA
Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

Patxi
· bazkariak EGUNERO
· afariak ostirala eta larunbata
© 943 362725 · © 688 690 361

Ingemarren zorra kitatzeko akordioa adostu dute

Akordio honen bidez, aipatu lantegiak Usurbilgo Udalarekin duen zorra kitatzea ahalbidetuko du hein handi batean.

2017ko abenduko epai baten bidez, "Lugoko epaitegian, Ingemar SA sozietatearen konkurtso-prozeduran, hartze-kodunen hitzarmena onartu zen". Lantegiak Udalarekin guztira 486.251,01 euroko zorra zuela zehaztu zen, lau zor mota hauetan banatua: zor pribilegiatua (27.958,59 euro), zor orokorra (270.837,12 euro), zor arrunta (135.773,88 euro), eta menpekoa (50.681,42 euro). 2019ko urtarrilean Udalak eta Grupo Ingemarrek zor pribilegiatua bost urteetan ordaintzeko akordioa sinatu zuten. Orain arte, ordea, 27.958,59 eurotik "25.927,63 euro kobratu ditu, enbargo baten bidez kendua", alkateak uztaileko osoko bilkuran azaldu zuenez. Zor zati hori ordaindu ez, eta gainera, kopurua nabarmen handitzen joan dela berri eman zuen Udalak. "Konkurtsorearen ostean, zor gehiago eragin ditu, ordaindu gabeko zerga eta bestelakotik eratorrita: 406.639,76 euro euro. Masaren aurkako kreditua da, eta, ondorioz, zor hori ez dago konkurtsorearen".

Lantegiko eremuaren lanketa elkarlanean

Egoera horretan zela, 2021ean Grupo Ingemar SA administratzaile berrien esku geratu zen. Orditik, haiekin hartue-manetan izan da Udala. Zorra ordaintzeko nahia baina era berean zor hori kitatzeko ezintasuna Atalluko "partzela saldu ezean", adierazi izan diete jabe berriek Udalari. Jabe aldatuta hau, Udala Hiria Antolatzeke Plan Orokorraren berridazketa betean harrapa-

tu zuen. "Zingirategiko eremurako (Ingemar) antolamendua eurekin batera landu eta adostu dugu, Udalak zehaztutako hirigintza irizpideen arabera. Adostasun inportantea izan da: dakizuenez, eremu misto bat sortuko da han: eremu industrial, etxebizitzak eta ekipamenduak. Adostasunez eraikitako planteamendua izan da. Eta balioan jarri nahi dut".

"Ingemarrek zor handia du askorekin"

Azken hilabeteotan mugimendu gehiago izan dira gai honen bueltan. Apirilean Udalak bilera izan zuen Ingemarreko administratzaile berriekin. "Orduan esan ziguten hitzarmenaren aldatzea proposatu dietela hartzekodun guztiei, eta epaitegiak onartu egin zuela". Aldaketa honek, Udalaren esanetan, "konkurtsorearen dagoen zorrari eragiten dio, ez osoari, ordea: hau da, kreditu arrunta eta menpekoari eragiten dio, eta %90eko kita onartzea proposatzen zuten. Hau da, 135.773,88 euro eta 50.681,42 euroko kredituei".

Maiatza hasieran jaso zuen Lugoko epaitegiko epaia eta hitzarmen aldatu horretara batzeko bi hilabeteko epea ireki zen. Bi aukera zituen Udalak; aldatuta hau onartu edo ezezkoa ematea. "Hitzarmenaren aldatuta ez onartzeak enpresa likidatzea ekar zezakeen, eta eskenatoki hori inorentzat ez zen egokia, izan ere, zorrak inoiz ez kobratzea ekar zezakeelako, eta Ingemarrek zor handia du askorekin, tartean Usurbilgo Udalarekin".



Ingemar lantegiaren ataria. NOAUA

"Udalarekin duten zorra ordaintzeko akordio proposamena igorri genien"

Udalak gaiotan "konkurtsorearen eta prozeduretan" adituak diren Zubizarreta Consulting abokatu taldea kontratatatu zuen eta "negoziazioak eta elkarrizketak abiatu genituen Grupo Ingemarreko jabeekin. Aipatu zigutenez, hartzekodun asko ari ziren hitzarmena onartzen, beraz, gerta zitekeen Usurbilgo Udalaren botoa beharrezkoa ez izatea". Hitzarmen aldatu hau onartzeko Udalak bere baldintzak jarri zituela adierazi dute udal gobernu taldeak. "Udalarekin duten zorra ordaintzeko akordio proposamena igorri genien: konkurtsorearen dagoen zor guztia ordaintzeko eta konkurtsorearen ostean sortutako zorraren zati bat".

"Erdibideko akordioa" zorra ordaintzeko

Diru hori guztia batera ezin zutela ordaindu adierazi zioten Ingemarreko jabeek Uda-

"ERDIBIDEKO AKORDIO BAT ADOSTU ZEN EKAINEAN"

lari. Ondorioz, eta hauxe joan den ekainean erdietsi zutena, "erdibideko akordio bat adostu genuen 2023ko ekainaren 15ean egindako bileran, zor pribilegiatua (290.127,63 euro) eta konkurtsorearen osteko (406.639,76 euro), guztira, 696.767,40 euro, ordaintzeko modua zehazten duena.

Ordainean, udalak, kreditu arrunta eta menpekoari dagokion %90eko kita onartzen zuten". Modu honetan, 100.000 euro hitzarmena sinatu aurretik ordaintzea adostu zuten. Zati hau jada hitzarmena sinatu berrikan kitatu zuten.

Ordainketa mailakatua

Urriaren 1erako beste 126.391,77 euro ordaintzea adostu dute, udal gobernu taldeak jakinarazi dutenez. "Gainerakoa (470.375,62 euro), modu zatikatuan ordaintzea: hilero 7.225,62 euro, 60 hilabetetan. Ordainketak hil hasieran egingo dituzte". Bitarte horretan, gainera, "Ingemarrek Usurbilgo partzela salduko balu, zorra kolpetik ordaintzeko konpromisoa hartzen dute. Ez balute ordainduko, bermeak ere ezarri dira hitzarmenaren, Usurbilgo finka hipotekatzea udalaren mesedetan".

"Nire tesi proiektua Parkinson gaixotasunari buruzkoa da"

MAIDER ZUBELZU IKERLARIA

EHUko Farmakologiako doktoregaiak Fundación Lilly-The Conversation saria irabazi du 'Parkinson gaixotasuna usaindu al daiteke?' artikulu dibulгатiboari esker.

'Parkinson gaixotasuna usaindu al daiteke?' artikuluarekin irabazi duzu Fundación Lilly-The Conversation sariaren III. edizioa. Azal iezaguzu zeri buruzko lana den eta zergatik erabaki duzun horri buruz idaztea.

Artikuluak Parkinson gaixotasunean biomarkatzailer fidagarriak aurkitzeak duen garrantzia azaltzen du, Joy Milneren istorioa irakurlearentzat arreta puntu bezala erabilita. Biomarkatzaileak sustantzia batzuk dira eta euren aldaketek gaixotasunen baten presentzia adieraz dezakete. Kasu honetan, seboan aurki daitezkeen biomarkatzaile desberdinak aipatzen dira artikuluan eta baita horiek Parkinsonaren diagnostiko goiztiarrerako izan dezaketen garrantzia azpimarratu ere. Nire tesi proiektua Parkinsonari buruzkoa da, eta beraz, dibulгатzioko artikulua hau gaixotasun honi buruz idatzi nahi nuen. Egun batean, nire tesiko tutoreak Joy Milneren istorioa aipatu zidan eta interesgarria iruditu zitzaidan horri buruz idaztea. Joy eskoziako emakume bat da, erizaina izandakoa eta oso usaimen fina duena, hiperosmia bezala ezagutzen dena. Bere senarrari Parkinsona diagnostikatu baino hamarkada bat lehenago, senarrari usaina aldatu zitzaiola



"Parkinsonarekiko interesa masterretik datorkit".

ohartu zen. Diagnostikoa eta gero, gaixotasunari buruzko hitzaldietara joaten hasi ziren eta bertan ohartu zen beste gaixoez ere usain berdina zutela, egurraren antzekoa. Ikerlariarekin hitz egin eta horrela hasi ziren Parkinson gaixotasunaren eta gorputzeko usain aldaketei buruzko ikerketak egiten.

Masterra egitean ere horrelako gairen bat landu zenuen edo orain, doktoretza egitean, gai hauek lantzen ari zara?

"ETORKIZUNEAN PARKINSONAREN INTZIDENTZIA ASKO HANDITUKO DA"

Neurozientzietako masterra egin nuen Madril en eta ikasgai bat genuen gaixotasun neurodegeneratiboei buruzkoa. Bertan gaixotasun desberdinak landu genituen, Alzheimerra, Parkinsona, Esklerosi Lateral Amiotrofikoa... Baina ez ziguten ezer irakatsi usainen eta gaixotasunen loturari buruz. Orain, doktoretzan, esan bezala, Parkinsonari buruz ari naiz ikertzen, baina ez zehazki gaixotasun honen usainari buruz. Gai honi buruz irakurtzen eta informatzen hasi naizen lehen aldia saritua izan den artikulua idazten hastean izan da; niretzat ere nahiko berria da.

Inguruan tokatu zaizu Parkinson gaixotasuna duen norbait edo nondik datorkizu gai honetikiko interesa?

Zorionez, momentuz ez zait tokatu inguruan Parkinsona duen inor. Parkinsonarekiko interesa masterretik datorkit, gaixotasun neurodegeneratiboei buruzko ikasgai hartan irakasle oso onak izan nituen eta asko gustatu zitzaidan. Gainera, adinarekin lotuta dauden gaixotasun hauei buruz ikertzea oso garrantzitsua iruditzen zait. Gaur egun, pertsona askok dute Parkinsona, baina datozen hamarkadetan intzidentzia asko handituko da gizar-tearen zahartzearen ondorioz. Beraz, gaixotasunari buruzko ikerketak garrantzitsuak dira etapa goiztiaragoetan gaixotasuna diagnostikatzeko edota gaur egun sintomatikoak bakarrik diren tratamenduentzat alternatibak bilatzeko.

Nolatan erabaki zenuen lehian parte hartzea? Lehen aldia zenuen?

Bai, hau lehen aldia nuen. Aurreko urtean zalantzan egon nintzen aurkeztu edo ez, baina azkenean denbora

→ faltagatik ez nintzen aurkeztu. Hala ere, aurten animatu naiz. Farmakologia departamentuko lankide bat ikerketaren gizarte hedapenerako zuzendaria da gaur egun EHUn, eta dibulgazio-ko lehiaketa eta gaiak jarraitzen ditu. Aurreko urtean berak hitz egin zigun nire tutoreari eta niri lehiaketa-ri buruz, eta aurten ere gogorazi digu deialdia itxi aurretik. Jende asko ez zela aurkeztuko iruditzen zitzaio- la eta animatzeko esan zidan, eta halaxe egin nuen.

Zein izan da jaso duzun saria? Zer eman dizute saritzat?

Sari bat baino gehiago banatu dute. Aukeratutako lehen 10 artikulua argitaratu dituzte eta lehen biertzat, dirua ere bazen saritzat; lehenengoarentzat 2.000 euro eta bigarrenarentzat 1.000 euro. Saria irabazteak artikulua edo nire doktoretzako lana ezagutaraztera ematea ere ekarri dit, elkarrizketak egin baititut hainbat irrati kate-tan honen harira.

Artikulua irakurri nahiko bagenu, argitaratuta dago nonbait edo non aurki dezakegu?

The Conversation webgunean irakur daiteke. Nire izena bilatu eta bertan aurkituko duzue artikulua, webgunean argitaratu genuen beste dibulgazio-ko artikulua batekin batera. Gainontze-ko artikulua sarituak ere bertan aurki ditzakezue.

Farmakologiako doktoretza egiten ari zara. Zer ari zara aztertzen edo zein gai ari zara lantzen?

Parkinson gaixotasunaren animalia eredu batekin egiten dut lan. Saguek ez dute berez Parkinsona izaten, eta beraz, ikerketa esperimental-ala egiteko, modu batera edo bestera gaixotasuna eragiten zaie animaliei. Eredu ugari daude, baina ez da



"Gizakian neurona galera nabarmena gertatzen da gaixotasuna diagnostikatzen denerako".

gaixotasunaren animalia eredu perfekturik existitzen. Gaur egun gehien erabiltzen diren ereduak gizakian berez gertatzen denetik asko urruntzen dira, eta beraz, oso garrantzitsua da animalia eredu egokiak garatzea ondorengo ikerketetarako. Animaliei portaera-probak egiten dizkiet alterazio motorrak dituzten ikusteko.

Pertsonetan ere sintoma motorrak agertzen dira, dardarak edo mugimendu motelak, adibidez. Proba histologikoak ere egiten dituzte neuronon galera edo inflamazioa badagoen ikusteko. Gizakian neurona galera nabarmena gertatzen da gai-

xotasuna diagnostikatzen denerako.

Bestalde, azterketa elektrofisiologikoa ere egiten dugu neuronon funtzionamendua aldatuta dagoen ikusteko. Doktoretza egiten hasi nintzenean, hasierako ideia tratamendu neuroba-lesle bat ematea zen, ikusteko ea aipatutako sintoma edo aldaketa horiek hobetzen ziren.

Dena den, zientzian gorabehera eta arazo asko izaten dira normalean, eta azkenean ez dut uste denborarik eman- go didanik.

Doktoretza egiten dutenek unibertsitatean klaseak ere

"SARI GARRANTZITSU HAU IRABAZTEAK NIRE ARTIKULUAZ GAIN, NIRE DOKTORETZAKO LANA EZAGUTARAZTEKO AUKERA EKARRI DIT"

"THE CONVERSATION WEBGUNEAN IRAKURRI DAITEKE ARTIKULUA. NIRE IZENA BILATU ETA BERTAN AURKITUKO DUZUE ARTIKULUA"

ematen dituzte askok. Zu ere horretan zabilta edo ibiliko zara?

Doktoretza egiten ari gare-nok aukera hori badugu, nire kasuan ez zen derrigorezkoa baina egon naiz klase batzuetan. Ezin dugu teoria klaserik eman, ordenagailuko edo laborategiko praktikak bakarrik izan dai- tezke. Joan zen urtean bes- te irakasle batzuekin egon nintzen praktika batzuetan, entzuten eta ikasten, eta aurten lehen aldiz bakarrik egoteko aukera izan dut ordenagailuko praktika ba- tzuetan odontologiako gra- duan. Datorren urtean ere pentsatzen dut joango nai- zela praktikaren batera, ondo etortzen da beti es- perientzia hartzea.

"Tesia bukatzeko beste urte bat geratzen zait"

Behin doktoretza amaituta zertan lan egitea gustatuko litzazuke?

Oraindik ez daukat ezer argi, ez naiz horretan gehiegi pentsatzen jarri, egia esan. Momentuz, gutxienez beste urtebete geratzen zait tesia bukatzeko, eta bukaera gerturatzten denean jarriko naiz aukerak baloratzen. Askok atzerrira joaten dira doktoretza os- teko ikerketak egite- ra, unibertsitatean bertan ere gera nai- teke ikertzen eta klaseak ematen edo enpresaren batera joatea ere aukera ona izan daiteke.



Haur Eskolaren doakotasunaren bidean hainbat neurri hartu ditu Udalak azken aldian. ARGAZKIA: NOAJA!

Aldaketa Haur Eskolako esleipen kontratuan

Haur Eskolako familiek ordaindu beharreko kuoten %62a Udalak bere gain hartzeak Udarregi ikastolari zerbitzu-emakidaz esleitua dion zerbitzuaren kontratua aldatzea eragin du. Kontratu barruko aldaketa hau aho batez onartu zuten uztailaren 20ko udalbatzarrean.

Familia bakoitzak datorren 2023-24 ikasturtean ordaindu beharko duen Haur Eskolako kuoten %62a bere gain hartuko du Usurbilgo Udalak. Udaberriari hartu zuten erabaki hau. Horretarako, aurreko legealdiko azken osoko bilkuran, maiatzaren 25ekoan, aurtengorako onartuak zituzten ordenantza fiskalak aldatzea erabaki zuen udalbatzak. Uztailaren 20ko ezohiko saioan, udal titulartasunekoan den Haur Eskola Udarregi

ikastolari zerbitzu-emakidaz 2024. urtera arte esleitua dion kontratuaren bigarren klausula aldatzea erabaki zuten aho batez udal ordezkari guztiek, neurri hau bozkatu aurretik, udal gobernu taldetik berri eman zuten moduan. "Izan ere, Udalak ume bakoitzeko bideratu behar duen diru kopurua handiagoa baita, nabarmen. Udal ekarpena matrikulatu den ume kopuruaren arabera finkatzen da". 2023-24 ikasturterako, hain

zuzen, 72 haur matrikulatu dira Haur Eskolan, azken urteotako kopuru handiena, udal gobernu taldearen esanetan. Ondorioz, "2.700 euro bideratuko ditugu datorren urtean ikasleko. Guztira, udalak bere gain 200.000 eurotik gora bideratuko ditu datorren urtean, aurreko ikasturtean baino 120.000 euro gehiago, gutxi gorabehera". Alkateak osoko bilkuran gogoratu zenez, gainera, ordaindu beharreko kuotan izango den murrizketaz gain, hobariak ere herritarren eskura daude. Norbere errentaren arabera,

IKASTURTE HONETAN 72 HAUR Matrikulatu DIRA. KUOTEN %62A BERE GAIN HARTUKO DU UDALAK

%50-90 artekoak jaso daitezke.

Soilik 2023-2024 ikasturterako Familiei aplikatuko zaien kuota murrizketa, Udalak behin-behinean hartutako erabakia izango da, 2023-24 ikasturterako soilik. Hortik aurrera, 2024-25 ikasturterako "zer egin erabaki behar da", zioen udal gobernu taldeak uztailleko osoko bilkuran, "egungo datuetan, zama ekonomiko handia baita Udalarentzat". Beranduenez, abendurako "erabakia hartua izan nahi dugu". Bitarte horretan, batetik, aukera baten edo beste baten alde egiteko bideragarritasun ekonomikoari buruzko azterketak egiten ari dira, "bestelako hausnarketak ere" bai. Horrez gain, bai Udarregi ikastolarekin eta baita Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailarekin "komunikazio kanalak irekiak ditugu".

Doakotasunaren bidean

Eusko Jaurlaritzak ikasturte honetan Partzuergoko Haur Eskolak doakoak izango zirela iragarri zuen urte hasieran. Udal titulartasuneko EAE-ko hamahiru eskolak (Usurbilgoa tartean) erabaki horretatik at kokatu zituen. Hezkuntza Sailaren eskumenekoak diren ikastetxeon finantziazioa handitzea eskatu zuten Udaletik, 3 milioitik 6 milioira handitzea kopuru hau. "Arazoa konponduko litzateke. 6.000.000 euro asko da, baina testuinguruan jartzeko, Eusko Jaurlaritzaren aurrekontu 2023 urtean, 14.500 milioi euro inguruko da eta Partzuergo gora 66.000.000 euro bideratzen ditu". Baina erantzunik jaso ez eta doakotasun horretara hurbiltzeko hartu ditu aipaturiko neurriak Udalak azken hilabeteotan.

ARANKA BERRIKUNTZAK
 · Fatxadaren estaldurak · Estalkien berriztatzeak
 · Barruko berrikuntzak · Gremioen koordinaketa
 · Igeltseritza orokorra
606 37 21 05 USURBIL

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!
USURBILGO HORTZ KLINIKA
 ANTON BERNAL RUIZ DE OÑA
 EKAITZ GARMENDIA MERINO RPS: 28/22
943 37 08 78 NAGUSIA 10, 1 C4 USURBIL

Uraltz, s.l.
 Igeltseritza Orokorra

693 059 392
 uraltz@uraltz.com USURBIL



Santio bezperan, arratsaldeko 18:00etan piztu zuten jaien hasierako suziria.



Mendizabal-Arrillaga eta Larrarte-Erasun arteko partida ikusgarria izan zen.



Soka-dantzan aritzeko ohitura berritu zuten Santio Egunean.



Sagardo dastaketa egunean bero handia egin zuen.



'Desafiyuan', Jai Batzordeko kideak eta herritarrak bi taldetan banatu ziren.



Globo gerrarekin bukatu zen Umeen Eguneako egitaraua.



Joko Garbi erakustaldi bikaina egin zuten herriko gaztetxoek.



Jaiei agur esan zieten suziri eta trakarekin. Irudi gehiago: noaua.eus.

URDAIAGAKO JAIAK



Orbeldiko dantzarien emanaldiak abiarazi zituen Xanistebanak.



Auzokideek jolas ezberdinetan neurtu zituzten indarrak.



Nagore eta Koldo Lertxundi nagusitu ziren mus txapelketan.



Aulki nahiz globo jokoetan aritu ziren Umeen Egunean.



Belaunaldi ezberdinetako sukaldariak aritu ziren patata tortilla lehiaketan.



Iker Zubeldia, Nerea Elustondo eta Agin Laburu bertsolariak, ohol-tza gainean.



Traktopoteoak Urdaigako festa giroa herri erdiguneraino ekarri zuen.



Festak ibilaldi neurtu batekin borobildu zituzten. Irudi gehiago: noaua.eus.



Etxekalte (argazkian) eta Mihise aritu ziren abuztuaren 25ean.



Zaparra eta Neskatasuna taldeak aritu ziren abuztuaren 26an.



Virginia Canok eta Joseba Outeiralek (Astigarraga) irabazi zuten mus txapelketa.



Buztinzulok gidatu zuen buztzingintza tailerra.



Bapo jan eta edateko aukera bikaina izan da beste urte batez Atxegalden.



Haurren egunean txokolate-jana eskaini zieten bertaratu ziren guztiei.



Gaztetxoek eta helduen arteko toka txapelketak jokatu ziren Atxegalden.



Bertso saio batekin amaitu ziren Atxegaldeko jaiak. Irudi gehiago: noaua.eus



Buruntzaldeko euskaltegiatiko kideak, Astigarragan ateratako familia-argazkian. ARGAZKIA: AIURRI

Euskara ikasi, mihia zorrozteko

Kalitateko hezkuntza bermatu nahi diete eskualdeko zortzi euskaltegiek euskara ikasteko motibazioa agertzen dutenei. Maila guztiei begirako eskaintza malgua dute.

Urtero-urtero, euskararen trebatzeko konpromisoa hartzen dute zenbait herritarrek, AEK-ren eta Udal Euskaltegien laguntzarekin, aurrera egiteko grinez.

Euskara ikasteko arrazoi adina aukera bermatzen ditu Buruntzaldeak: guztira, zortzi euskaltegi biltzen ditu eskualdeak; bana, Andoainen, Urnietan eta Usurbilen; bina, berriz, Hernanin eta Lasarten. Abaniko zabala dute eskuen artean euskararen trebatzeko gogoia duten herritarrek, aurrez aurreko ikastaroaren bidez, baita autoikaskuntza hautatuta ere.

Hori gutxi balitz bezala, diruz laguntzen dute eskualdeko udalek ikasketa-prozesua. Halaber, HABEK ere diru-laguntzak ematen ditu, baldin eta erakundeak ezarritako maila edo baliokidea eskuratzen badu ikasleak.

Ateak irekita

Prest da Hernaniko Udal Euskaltegia 2023-24 ikasturteari begira euskararen trebatzeko gogoia duten herritarrek jasotzeko. Bada, bertako irakasle da Izaskun Arrieta eta elkarren artean antzekotasunik ez duten bi mailatan egiten du lan: batetik, hasi berri direnekin,

alegia, A1 mailakoekin eta, bestetik, 17 urteko nerabeekin, C1-aren prestaketan. Profil anitzeko jendea biltzen da euskaltegian; hortaz, bakoitzaren neurriari egokituak estrategiak erabiltzen dituzte irakasleek hizkuntza erakusteko. Ildo beretik, gustuko du kontrastea Arrietak, maila bakoitzak bere esizientziak eta pazientziak eskatzen dituelako. Dena dela, maiz, hizkuntza bat ikasteak dakartzan buruhausteak buruhauste, irakaslearen hitzetan, "ederra izaten da ikasturte amaieran emaitzak ikustea, aurrerapausoak eman dituztela antzema-tea". Askorentzat egindako lanaren aitortza da titulua eskuratzea, baina ikasketa-pro-

EUSKARA IKASTEKO AUKERA ZABALA DA BURUNTZALDEAN

zesuan ere begirada ipini du irakasleak: "Jende asko euskaldundu da gurean". Egune-ro, ordea, makina bat erronkarekin egiten dute topo irakasleek: "Atzean gelditu den hori nola motibatu asmatzea ere badugu xede".

Taldean ikasteko aukera

Motibazioa soberan dauka Rocio Arias Andoainen bizi den urnietarrak urtero-urtero herriko AEK euskaltegian izena emateko. Ezer gutxi zekien euskaraz lehen, ikasketa guztiak gaztelaniaz egin baititu. Horrela, hutsetik hasi zen hizkuntzan trebatzen eta sei urte daramatza buru-belarri bertan, aurrez aurreko klaseak jasotzen. Egun, B2-B1 mailan dago (entzumena/irakurmena-idazmena/mintzamina). Titulurik ez duela behar dio, eta, horrela, haren hitzetan, ez dio gehiegizko presiorik jartzen bere buruari: "Oso gustuko dut hizkuntza taldean ikastea, eta harreman polita dugu irakaslearekin. Gelakide asko ez nituen lehenago eza gutzen, gainera". Elkarriz laguntzen diotela azaldu du ikasleak, eta klaseak "dinamikoak, arinak eta erosok" iruditzen zaizkio: "Jakin-mina izanez gero, proba dezala jendeak".

Gauzak horrela, irakurle, eskuen artean duzu ikasturteari begirako erronka berria: euskaltegian izena eman eta euskararen trebatzea, mihia zorroztea.

Euskara ikasteko diru-laguntzak

Andoain

- Baldintzak: 16 urtetik gorakoa izatea, Andoainen erroldatuta egotea (gutxienez, 6 hilabete) eta % 85eko asistentzia.
- Dirulaguntzak: xehetasunak, euskara.buruntzaldea.eus web orrian.

Astigarraga

- Baldintzak: 16 urtetik gorakoa izatea, Astigarragan erroldatuta egotea eta %85eko asistentzia.
- Dirulaguntzak: xehetasunak, euskara.buruntzaldea.eus

Hernani

- Baldintzak: Hernanin erroldatuta egotea eta % 85eko asistentzia.

- Dirulaguntzak: xehetasunak, euskara.buruntzaldea.eus

Lasarte-Oria

- Baldintzak: 16 urtetik gorakoa izatea, Lasarte-Orian erroldatuta egotea, %85eko asistentzia.
- Dirulaguntzak: matrikularen %85a gehienez ere.

Urnietan

- Baldintzak: Urnietan erroldatuta egotea, %80ko asistentzia.

- Dirulaguntzak: matrikularen % 100 gehienez ere langabetuentzat, eta %85, gehienez ere, lanean ari direnentzat.

Usurbil


- Baldintzak: 16 urtetik gorakoa izatea, Usurbilen erroldatuta egotea, %80ko asistentzia eta aprobetxamendu egokia.
- Laguntzak: matrikula osoa. *Xehetasun gehiago, udal bakoitzaren web orrialdean.

Buruntzaldeko udalek %70 - %100 artean diruz laguntzen dute euskara ikastea!

Usurbil



Andoain



Lasarte-Oria



Urnieta



Hernani



Astigarraga



**Eus
ka
ra
ikasiz**

Erabiliz ikasi,
ikasiz erabili



Buruntzaldea
euskaraz

Jo gogoko duzun euskaltegira eta izena eman!

ANDOAIN

Andoaingo AEK
Plazaola, 2
943 591 704
andoain@aek.eus

LASARTE-ORIA

Munterri AEK Euskaltegia
Geltoki kalea, 17 behea
607 625 233
lasarte@aek.eus

HERNANI

Hernaniko AEK
Larramendi, 11
943 557 801 - 607 592 864
Zilegi eskola: 663 043 314
hernani@aek.eus

USURBIL

Etumeta AEK Euskaltegia
Kale Nagusia, 43 behea
607 609 379
usurbil@aek.eus

ASTIGARRAGA

Astigarragako AEK
Kultur etxea. Nagusia, 48
607 610 687
astigarraga@aek.eus

Lasarte-Oriako Udal Euskaltegia

Bekokale bidea, 1
(anbulatorioaren gainean)
943 361 621
euskaltegia@lasarte-oria.eus

Hernaniko Udal Euskaltegia

Karobieta, 63
(anbulatorio zaharra)
943 331 896
euskaltegi@hernani.eus

URNIETA

Urnietako AEK
San Joan, 42 (Elkarteen etxea)
662 338 747
urnieta@aek.eus



Andoaingo Udala
Goiko plaza, 2/g
20140 Andoain



Astigarragako Udala

Astigarragako Udala
Foru enparantza
20115 Astigarraga



Hernaniko Udala

Hernaniko Udala
Gudarien plaza, 1
20115 Hernani



LASARTE-ORIA

Lasarte-Oriako Udala
Kale Nagusia, 22
20160 Lasarte-Oria



Urnietako Udala
San Juan plaza, 2/g
20130 Urnieta



Usurbilgo Udala

Usurbilgo Udala
Jose Martin Sagardia plaza
20170 Usurbil

Giza katea Kontxako estropaden bigarren jardunaldian

Hondakinak erraustearen aurkako giza katea deitu dute datorren iganderako, irailaren 10erako Donostian.

"Errausketa=kutsadura". Aldarri ezin argiago honekin deitua du Errausketaren Aurkako Mugimenduak eragile gehiagorekin batera, igande honetarako, irailaren 10erako giza katea Donostiako Kontxan, urte luzez egin duten moduan, hiriburuko uretan ospatuko diren estropaden azken jardunaldi egunean. "Murrizketa, birziklapena, gaikako bilketa intentsiboa, bizitza" goraiptuko dute badiako hondartza inguratuko duen hitzorduan.

Ohi bezala, 11:00etan abiatuko da Alderdi Ederretik eta



Igande honetan, Kontxan.

Kontxako hondartzara jaitsiko da mobilizazioa. "Zatoz giza katera!", egin diete gonbita herritarrei, deitzaileok; Errausketaren Aurkako Mugimendua, Eguzki, Donostia Bizirik, Ekologistak Martxan eta Larramendiko Arnasa eragileek hain zuzen.

Bergarako Arnasa plataforma, deitzaileen artean

Iaz, aipatzeko moduko berezitasun bat izan zuen "Errausketgia gelditu! Sistema aldatu ez klima!", aldarriean osatu zuten kateak. Bergararren partehartzea. "Larramendin erraustegirik ez!" aldarria zuen pankartarekin bat egin zuten mobilizazioarekin. Herri hartan, Larramendiko Arnasa izeneko plataforma osatua dute. Hondakin industrialen erraustegi bat eraiki nahi diete eta haren aurkako giza katera batu ziren. Aurten ere deitzaileen artean dira.

Iñaki Errasti eta Josu Ostolaza, Kontxako Banderaren bila

Igande honetan argituko da Kontxako Banderaren irabazlea. Aurtengoan, Aginagako bi kirolari ari dira lehian; Ondarroako ontzian Iñaki Errasti, Josu Ostolaza Oriokoan.

Kontxako Bandera

- Irailak 10 igandea.
- 11:00etan emakumezkoen arteko estropadak.
- 12:00etan gizonezkoen artekoak.



Iñaki Errastik Ondarroan segiko du 2024ko denboraldian. ONDARROA A.E.

ENE KANTAK
DANTZAN

IRAILAK 17
17:30tan

HERNANIKO
KIROLDEGIAN

Sarrerak: 10,00€
(+ eragiketa gastuak)

30 DOBERA
EUSKARA ELKARTEA

14 NOAUA 2023-09-08

HHI-EPA USURBIL HELDUEN ESKOLA

Matrikula epea

(Irailaren 1etatik 15era)

(aldez aurretik telefonoz hitzordua eskatu 943 37 64 43- 943 36 66 08)

•HEZKUNTZA OROKORRA

(Oinarrizko Euskara, Ingelera, Gaztelania, Irakurketa, Idazketa. Hiritartasun digitalerako Informatika.

Kalkuloan hastapena eta hobekuntza. Memoria lantzeko joko linguistikoak eta joko matematikoak. Natur Zientziak. Elikadura. Osasuna. Ongi izatea. Geografia. Historia eta historiarekin erlazionatutako mugimendu artistikoak...)

• DBH-ko titulua (4 hilabeteko ikastaroak)

• OINARRIZKO EUSKARA

• GAZTELANIA ATZERRITARRENTZAT

• IRTEERA DIDAKTIKOAK URTEAN ZEHAZ



ARGIBIDEAK: 943 36 66 08

ile apaindegi mistoa

GOLDWELL ELUMEN

Azkeneko produktu eta teknikak!

Zubiaurrenea 4, ☎ 943 361 951

USURBIL
OPTIKA

2x1

PROGRESIBO,
URRUTIKO
ETA GERTUKO
BIGARREN
LENTE PAREA
DOAN!

943 37 02 69

ZUBIAURRENEA 10, USURBIL usurbiloptika@hotmail.com

Ba & a
Inmogest

FINKA ADMINISTRATZAILEA
AHOLKULARITZA ZERBITZUA

INMOBILIARIA
ASEGURUAK

943 573 693
Eusko Gudari 35, ORIO



Helduen lasterketan 150 lagunentzako lekua egongo da. ARGAZKIA: NOAUA

14. Baxurde Kroserako izen-ematea zabalik da

Umeen krosean, eskualdeko edo aldameneko herrietako gaztetxoek ere parte hartu ahal izango dute.

Hamalagarren edizioa, irailaren 17rako iragarri dute. Gaztetxoek nahiz helduen lasterketetan izen-emateko epea zabalik dago jada.

14. Baxurde Krosa

Eguna: irailak 17, igandea.
Ordua: 10:30-12:30.
Tokia: Usurbilgo frontoia, irteera eta helmuga.

Zehaztasunak:

- 09:00 Dorsalen banaketa Mikel Laboa plaza ondoan.
- 10:30 10,9 kilometroko 14. Baxurde Krossa. Usurbilgo frontoian hasi eta amaituko da. Herriko Kaxkoa eta landa eremuko bideak zeharkatuko ditu.
- 12:00 Umeen krossa 2008-2015 urte artean jaiotakoentzat:
- 12:00 Benjaminak (8-9 urte-

koak, 2014-15ean jaiotakoak) eta alebinak (10-11 urtekoak, 2012-13an jaiotakoak). 600 metrokoa. "Lehen erdia antolakuntzagatik bideratua izanez eta bigarren erdia beraien erritmora joaten utziko zaie, beti antolakuntzaren begiradapean".

- 12:10 Infantilak (12-13 urtekoak, 2010-11n jaiotakoak) eta kadeteak (14-15 urtekoak, 2008-09an jaiotakoak). 1.000 metrokoa. "Beraien erritmora joaten utziko zaie hasieratik, beti antolakuntzaren begiradapean".

FRONTOITIK ABIATUKO DA ETA HELMUGA ERE BERTAN EGONGO DA

- 12:20 Prebenjaminen lasterketa, 200 metrokoa. "Denbora guztian antolakuntzagatik bideratua izanez. Adin honetako umeak, egunean bertan apuntatu ahal dira probara".

Izen ematea:

- Irailaren 16ko 12:00ak arte kronoak.com atarian. 12 euro helduen lasterketa, doan umeen krosa.

Oharrak:

- Kontsigna, frontoian.
- Izen-ematea online bideratu ahal da soilik.
- Lasterketa amaieran, lehen hiru gizon-emakumezkoentzat saria eta partehartzaile guztientzat opari bana eta zozketak (2 lagunentzako otorduak herriko tabernetan, herriko kirolari profesionalen sinaturiko arropa edota janari lote ezberdinak).
- Umeen krosean, eskualdeko edo aldameneko eskualdeko umeek parte hartu ahal izango dute. Usurbilgoez gain, Donostialdea, Tolosaldea, Azpeitialdea eta Irunaldekoek. Lasterketak ez dira lehiakorrak izango.
- Antolatzailea: Baxurde Txiki Usurbilgo Triatloi Taldea.

Informazio gehiago:
kronoak.com.

Jon Begiristain, Bera Berako bigarren entrenatzailea

Eskubaloi talde honek bi herrikide izango ditu aurrerantzean; Esther Arrojeria jokalarien artean eta Jon Begiristain Agirre, bigarren entrenatzailea izango da. Bidasoan eta Aiala Zarautzen Martin Larrañaga herrikidearekin aritua da aurrez. Ibilbide hau ordea, herrian hasi zuen, Usurbil Kirol Elkartearen.

Enrike Abril txapelketa martxan da

Abian da errebote txapelketaren edizio berria. Iragan igandean jokatu zuten lehen jardunaldia, bi multzoetan banaturiko sei taldeek, tartean Zubietak etxean Behar Zanakoen aurka. Aldaketarik ez bada, igandean jokatuko da bigarren jardunaldia, zubietarrek oraingoan atsedendaldia izango dute.



Bi domina Nahia Zudairerentzat

Nahia Zudaire Borrezok zilarrezko eta brontzeko domina bana irabazi zituen abuztuko lehen astean Manchesterren jokaturiko mundu mailako igeriketa txapelketan. 400 metroko estilo librean zilarrezko domina eskuratu zuen. 100 metroko bular-igeriketa proban brontzekoa. Zorionak!

Udal dirulaguntzak: ebazpenak eta deialdi berriak

Udalak hainbat dirulaguntza lerro ditu zabalik. Deialdi batzuen ebazpenak eta beste deialdien inguruko informazioa batu dugu.

Udan zehar hainbat dirulaguntza deialdiaren ebazpenak kaleratu ditu Udalak. Beste hainbat deialdiatarako eska-bideak aurkezteko epeak zabalik segitzen du. Hemen xehetasunak:

Aisialdiko begirale edo zuzendari ikastaroak euskaraz egin dituztenentzako dirulaguntzak

- Aurkezturiko eta onarturiko eskaerak: 10.
- Banatutako dirulaguntzak guztira: 1.730 euro.

Euskara ikastaroak egin dituztenentzako dirulaguntzak

- Aurkezturiko eta onarturiko eskaerak: 50 eskaera 51 ikastaroetarako.
- Banatutako dirulaguntza guztira: 24.473,35 euro.

Kultur sorkuntzarako egitasmoak garatzeko dirulaguntzak

- Aurkezturiko eta onarturiko eskaerak: 4.
- Banatuko den laguntza kopurua: 8.322,26 euro.

Kirol elkartenak ez diren kirol jarduerak burutzeko dirulaguntzak

- Aurkezturiko eta onarturiko eskaerak: 5.
- Banatuko den laguntza kopurua: 1.673,40 euro.

Kirol egokitutako jarduerak burutzeko dirulaguntzak

- Aurkezturiko eta onarturiko eskaerak: 1.
- Banatuko den laguntza kopurua: 3.000 euro.

Kirol elkarten ohiko egitasmoak burutzeko dirulaguntzak

- Aurkezturiko eta onarturiko eskaerak: 7.
- Banatuko den laguntza kopurua: 50.000 euro.

Informazio gehiago:

Uztailaren 19ko eta 28ko Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala.

Eska daitezkeen udal dirulaguntzak

Norgehiagoka erregimenekoak ez diren Kirol Arloko dirulaguntzak eskatzeko deialdia

- Lagunduko diren egitasmoak: laguntza bereziak (5.400 euro),



Hutsik dagoen merkataritza lokal batean jarduera ekonomiko berri bat jarri nahi duenak 5.500 euroko laguntza jaso dezake. ARGAZKIA: NOAUA

taldeetako prestakuntza teknikoak (1.000 euro), kirolariaren oinarriko osasun miaketak (5.000 euro), eskolaz kanpoko kirol jardueretan parte hartze-ko dirulaguntzak (5.000 euro).

- Epea: abenduak 1.

Ekintzaileentzako Kabiene Elkarten lankidetzaren esparrua erabiltzeko Hasiz Hazi bekaren oinarriak

- Laguntzaren zenbatekoa: dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa 1.234,20 eurokoa izango da, beti ere ekintzaileak 12 hilabetetako erabilera izaten badu Kabiene.
- Epea: irailak 30.

Hutsik dagoen merkataritza lokal batean jarduera ekonomiko berri bat abian ipini nahi duten

Ekintzaileentzako dirulaguntzen oinarriak eta 2023ko deialdia

- Laguntzaren zenbatekoa: ekimenak abiarazteko hasierako gastuei aurre egiteko gehieneko 5.500 euro. Lokalaren alokairu edo erosketa gastuetarako, lehen urtean gehieneko 400 euro hilean, bigarren urtean 300 euro gehieneko jota.
- Lagunduko diren egitasmoak: egun eskaintzen ez diren zerbituekin lotutakoak edota itxi berriak izan diren jardueren jarraipena bermatzen dutenak lehentsiko dira.
- Epea: irailak 30.

Informazio gehiago:

Otsailaren 17ko Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala.

Xumetik herri jaialdian 'Zumeta 23' dokumentala aurkeztuko dute

Jose Luis Zumetaren frontoi atzeko muralaren 50. urtemugaren testuinguruan, Xumetik herri jaialdia eta "Zumeta 23" dokumentalaren aurkezpena iragarri dira bi aste barrurako. Xehetasun gehiago datorren aldizkarian.

Irailak 22, ostirala

22:00 "Zumeta 23" dokumentalaren aurkezpena Zubietako frontoian. Segidan, Peru Galbete eta gu taldearen musika emanaldia. Antolatzaileak: Usurbilgo Udal eta Zubietako Herri Batzarra.

Irailak 23, larunbata:

Xumetik herri jaialdia
11:00-13:30 Arte plastikoen erakusleio eta tailerrak herriko sortzaileekin.
18:00 "Usurbil museo irekia" ibilaldi girotua.
22:30 Xumetik ikuskizuna. Muralaren gogoetak dantza, antzerki eta musika bidez. Antolatzailea: Usurbilgo Kulturgunea.

Udal brigadaren lan-poltsarako azkerketak

Operario eta operario laguntzaileen lan-poltsa osatzeko abuztu amaieran egindako proben emaitzak usurbil.eus atarian kontsulta daitezke. Irailaren 5era arteko epea zuten interesdunek alegazioak aurkezteko.



Udalerrri euskaldunetako alkate eta hautetsiek uztailearen 7an frontoian egin zuten agerraldia. NOAUA!

"Kezkagarria eta larria iruditzen zaigu sententzia"

Udalek euskara hutsean jarduteko Auzitegi Konstituzionalaren debekua salatu zuen udalbatzak uztaileko osoko bilkuran.

Haserrea eta kezka eragin zuen uztailla hasieran Espainiako Auzitegi Konstituzionalak hartutako erabakiak. Udalei euskara hutsez jardutea ahalbidetzen dien Udal Legearen 6.2 artikulua baliogabetzea erabaki zuen, bere garaian VOXek aurkezturiko helegite baten harira. "Nahikoa da! Gu euskaraz gara!" aldarripean, 125 alkate eta hautetsik agerraldi jendetsua egin zuten epai hau ezagutu eta biharamunean, uztailearen 7an, Usurbilgo frontoian. "Kolpe handia da, bereziki udalerrri euskaldunontzat. Inolaz ere onartu ezin dugun atzerakada", salatu zuten hedabideen aurrean. Handik egun gutxira auzi hau epaitzen hasi zen EAeko Auzitegi Nagusiaren atarian mobilizatu ziren alkate eta hautetsiak.

Salaketa uztailearen 20an egin zuten ezohiko osoko bilkura heldu zen. EAJren ekimenez alderdi honek eta EHBilduk adosturiko adierazpena irakurri zuten. Idatziak nabarmentzen duenez, "kezkagarria eta larria iruditzen zaigu sententzia euskararen normali-

zazio eta biziberritze prozesuari oztipoa jartzea delako, helburu horren alde udaletatik bideratzen diren hizkuntza-politikak guztiz mugatzen baititu". Politika hauek "herriar guztien hizkuntza eskubideak bermatzen" dituztela gogorarazten dute. Hizkuntza gutxituen aurkako olatu erreakzionario baten baitan kokatzen dute epai hau. "Epai honen ondoren, salaketa are eta irmoagoa egiten dugu: oldarraldiaren aurka, baina, batez ere, euskararen normalizazio eta biziberritzearen alde".

Horregatik, salatzan dutenez, "euskara eta euskal hiztunak mespretxatzen ditu epai honek eta euskarak normalizazio eta biziberritze bidean etorkizunera begira dituen desafio handiei aurre egiteko moduko hizkuntza-politikak indarrean jartzea eragozten du".

"EUSKARA ETA EUSKAL KULTURA MESPRETXTATZEN DITU EPAI HONEK"

Horrekin batera, "epai hori euskararen biziberritzearen aurkakoa ez ezik adostasun sozial handi baten kontrakoa ere bada" eta ildo horretan, "herriarren eta udalen erabakimena jartzen ditu auzitan".

PSE-ren adierazpenak

Gai honi buruz zuen iritzia plazaratu zuen baita PSE-ko ordezkari Petra Romerok. Hasteko, "erabaki judizialei erabateko errespetua" adierazi nahi izan zien. "Sozialistok hizkuntza-eskubideen defentsaren alde gaude, hau da, herritarrek administrazioari libreki aukeratzen duten hizkuntzan hitz egiteko duten eskubidearen alde".

Gai honetan izan duten jarrerara azaldu zuen Romerok. "Jakina denez, sozialistok Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legearen aurka bozkatu genuen, eta artikulua batzuk konstituzioaren aurkakoak izan zitezkeela ohartarazi genuen. Orain, Konstituzio Auzitegiak Konstituzioaren aurkakotzat jotzen du legearen atal bat, erakundeen funtzionamenduari buruzko dokumentazioa euskaraz idatzi ahal izatea ezartzen duena". Hau adierazita, gaineratu zuenez, "gure taldetik beti lagundu ditugu euskara normalizatzearen eta biziberritzearen aldeko programak eta ekimenak, eta uste dugu eztabaida ezin dela egon hizkuntza eskubide bati beste eskubide batzuei aurre egiten".

Bost kideko hiru batzorde informatzaile legealdi berrian

Ekainaren 17an udalbatza berria osatu eta hamar egunera egin zuten legealdi berria antolatzeke lehen osoko bilkura. Bertan, aurreko legealdiko hamaikatik hirura murriztea erabaki zuten batzorde informatzaile kopurua: lurraldea, herritarrak eta antolaketaren izenekoetara hain zuzen. Udal egitura "zurrunetik malguagoetara" igarotzeko beharra identifikatu zuten, "koordinazioa erraztu eta eguneko funtzionamendua errazte" aldera. Uztailearen 20ko udalbatzarrean, hilabete honetan martxan jarriko dituzten batzordetan EHBilduren hiru ordezkari eta EAJ zein PSE-ko ordezkari bana izatea erabaki zuten.

2022. urteko Kontu Orokorra, behin betiko onartu du udalbatzak

Aho batez onartu zuten uztailearen 20ko osoko bilkuran, iazko Kontu Orokorra. Erabaki hau hartu aurretik, alegazioak aurkezteko jendarean egon da Kontuen Batzorde Berezia maiatzaren 16ko bilkuran behin-behinean onarturiko Kontu Orokorra 15 lanegunez, maiatzaren 26ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ostean. Tarte horretan inork ez zuen erreklamaziorik aurkeztu, eta beraz, behin betiko eta aho batez onartu zuen udalbatzak azken osoko bilkuran. 2022. urteko ekitaldiko Kontu Orokor hau, Usurbilgo Udalak "aurrekontuaren exekuzioa eta likidazioa onartu" ostean osatu zuten.

Denetariko ikastaroetan trebatzeko aukera

Irailarekin batera, herri eragileek iragarritako ikastaro eskaintza zabalean izen-emateko aukera duzue.

Orbeldi

Irailaren 15era arte eman ahalko da izena online, ondoko argazkian duzuen QR kodearen bidez. Bestela, irailaren 15ean matrikulatzeko aukera eskainiko dute Oiar-do Kiroldegian 17:00-18:00 artean.

Informazio gehiago: orbeldi.udt@gmail.com

Txalaparta eskola

2023-2024 ikasturterako izen-ematea zabaldu dute.

Informazio gehiago: 695 716 878 usurbiltxalaparta@gmail.com

Lanbide Eskola

Urriaren 13ra arte, ezohiko matrikulazio fasea zabalik izango du Lanbide Eskolak, "soilik plaza hutsak dituzten zikloetan".

Informazio gehiagorako:

943 364 600
lhusurbil.eus

KzGunea

Hilabete amaierara arte 16:00-20:00 artean zabalduko dute. Datorren ikastaroa, irailaren 18tik 29ra, 18:00-20:00 artean: "Ofimatika tresnak-LibreOffice".

Informazio gehiago: 943 023 684
tutor.usurbil@kzgunea.net

Etumeta AEK euskaltegia

Euskara ikasteko maila guztiak, Mintzalagun, autoikas-kuntza... Eskaintza zabala da. Izen-ematea astelehentik ostiralera ordutegi honetan: 11:00-13:00 / 17:00-19:30 (arratsaldeko ordutegia, astelehentik ostegunera).



Orbeldi dantza taldekoen ikastaroetan matrikulatzeko garaia duzue. NOAUA!

Informazio gehiago:

607 609 379
usurbil@aek.eus

Alkartasuna kooperatiba

"Etxeko sagarra baliatzeko eta kalitatezko sagar muztio pasteurizatua egiten ikasteko tailerra" antolatu du Alkartasuna Baserritarren Kooperatibak, irailaren 22an 16:00etan Alkartasuna Kooperatiban.

Informazio gehiago:

alkartasuna@usurbil.com
943 361 114.

Usurbilgo Kantu Taldea

Astelehenero bilduko dira ikastarorako. Arratsaldeko 18:00etan Agerialdeko musika gelan.

Irailaren 30ean larunbata, kantu-jiran irtengo dira eguerdiko 12:00etan Mikel Laboa plazatik.

18 urtetik gorako Helduen Heziketan matrikulatzeko aukera

Urtero irailean ikasturtea hasi aurretik, matrikulatzeko aukera eskaintzen du 18 urtetik gorako herritarrei zuzenduriko doako Helduen Heziketak. Oinarrizko prestakuntza ematen dute; hizkuntzak, oinarrizko informatika, idazmena eta irakurmena, joko matematikoak, naturzientziak, geografia, historia edota historiari lotutako artea... Horrekin batera, DBH titulua eskuratzeko moduluak, gaztelania atzeritarrentzat. Baita kultur ekintzak ere, bidaia eta kultur irteerak. Edota etorkinentza-

ko programa ere badute: euskara eta gaztelania irakasteko edota baita oinarrizko prestakuntza eskaintzeko ere. "Denok gaude ikasteko sa-soian!", gogorarazten dute. Matrikulaziorako honako ordutegia finkatu dute: astelehentik ostiralera, goizez, 10:00-13:00 artean, eta arratsaldez, 17:00-19:00 artean. Aurrez hitzordua eskatu behar da.

Informazio gehiagorako: 943 376 443/012734aa@hezkuntza.net. Irailaren 15ean abiaraziko dute ikasturte berria.

Einean guraso elkarteko zein Oiar-do kiroldegiko eskaintza

Zabalik dute izen-ematea Einean guraso elkarteak antolatutako ikastarootan:

Yoga:

Luzaketak, arnasketak, lasaitzea... Irakasleak: Katia (636711514), Sebas (605722825).

Pintura:

Oleoa, akuarela, pastela... Irakaslea: Susana (609413883).

Eskulanak:

Teknika ezberdinak ikasi gauza politak sortzeko edo berritzeko. Irakaslea: Susana (609413883).

Josteko tailerrak:

Sormena eta joskintza. Irakaslea: Ione (637 64 29 32).

Oiar-do Kiroldegiko eskaintza

Irailaren 20ra arte matrikulatu ahalko da haur, gazte eta helduei zuzenduriko areto jardueretan (spinning, pilates, 3. adina, zumba, yoga, eskalada...) edota igeriketa ikastaroetan.

Informazio gehiago: Kiroldegian bertan, Oiardok dituen sare sozialetan edo 943 37 24 98 telefono zenbakian.



Irailaren 15ean arratsaldeko 17:00etan piztuko dute txupinazoa. ARGAZKIA: NOAUA

Ikasturte hasiera bizi-bizia izango da Santuenean

2023-24 ikasturteari harrera egiteko ospakizunak eta festa giroz blaituriko asteburua iragarri dute Santuenean.

Jaiak begibistan dituzte Santueneko bizilagunek. Asteburu honetarako ordea, bestelako ekitaldiak iragarri dituzte. Ostiral honetan gaztetxoentzako ospakizun bat antolatu dute.

Irailak 8, ostirala

- 18:00 Ikasturte hasierako ospakizuna Santueneko plazan eta inguruan. Eurria bada, auzoko frontoian: haur jolasak eta ikasturte hasierako afari-merienda, musikarekin girotuta. Antolatzailea: Santuenea Kultur Elkarte. Laguntzailea: Udala.

Irailak 10, igandea

- Balkoiak apaintzeko lehiaketaren hasiera (zenbakiak banatuko dira).

SANTUENEA ELKARTEKO TAILERRAK

Aero Yoga

- Astelehena: 18:30-20:10.
- Asteazkena: 17:30-20:10.
- Osteguna: 18:30.

Aero dantza

- Osteguna: 17:15.

Aero fitness

- Asteazkena: 18:50.

Prezioak:

- Saio 1 astean: 35 euro/hilabeteko.
- 2 saio astean: 55 euro/hilabeteko.
- 3 saio astean: 75 euro/hilabeteko.
- Oharra:

Lehen ordainketa hiruhilekoa izango da (urria-abendua).

Joskintza tailerra

- Ostiraletan 17:00etan.
- Prezioa 10 euro astean.

Izena-ematea:

670 027 731.
615 715 991.

SANTUENEO JAIK

Irailak 15, ostirala

- 16:00 Ur jolasak.
- 17:00 Txupinazoa.
- Ondoren, globo gerra.
- 18:00 Txokolatada (Zaharren Egoitzan banatuko dute).
- 18:15-18:30 Patata tortilla lehiaketarako tortilla entregatzea.
- 18:30 Karro-kalejira eta poteo mozorrotua.
- Ondoren, buruhandiak.
- 21:00 Patata tortilla lehiaketaren irabazlea.
- Ondoren, bakoitzaren tortillekin, auzo afaria.
- 23:30 Kontzertuak: The Hastelen's eta Muxutruk erromeria.
- Ondoren, txosnan jarraituko du parranda giroak.

Irailak 16, larunbata

- 10:00 Umeen tailerrak.

- 12:00 Que Toke El De Alau txaranga.
- 13:00 Buruhandiak.
- 14:00 Haurren bazkaria (norberak ekarria, bertan edaria eta postrea banatuko dira).
- 15:30-16:00 Muserako izen-ematea.
- 16:00 Mus txapelketa.
- 16:00 Antzerkia: Pirata Garrapata.
- 17:30 Txokolatada (Tragoxka).
- 18:30 Buruhandiak eta Que Toke El De Alau txaranga.
- 19:00 Sardin jana.
- 21:00 Ankoker taldearekin trikipotea.
- 00:00 Dj Gaua: Dj Fantasia, Dj Maik eta Dj Fi/Dj Gurreu/Dj Azido Domingo.

Irailak 17, igandea

- 9:00 Esnadeia Jon&Jon.
- 11:00 Apar festa.
- 11:00 Toka eta igel txapelketak.
- 12:00 Hamaiketako txosnan.
- 12:00 Zanpantzarrak.
- 14:00 Auzo bazkaria. Menua: entsalada, oilasko errea, postrea eta edaria. Tiketak Zaharren Egoitzan, Tragoxkan, Aitzagan eta Artzabalen.
- Ondoren, bingoa.
- 18:00 Buruhandiak eta Karro-kalejira.
- 19:00 Piper dastaketa.
- 19:30 Balkoi apaintze lehiaketako eta argazki lehiaketako saridunak.
- 19:45 Hispanoamerica mariatxiak.
- 21:00 Festen amaierako traka.

Antolatzailea:

Santueneko Jai Batzordea.

Antxeta
TABERNA
egunero irekitzen dugu!
• eguneko menua • asteburuko menua
• oilasko erreak, ogitartekoak, raziak...
paellak enkarguz!
943 54 43 12 Zubiaurrenea 6, Usurbil.

ZENDOIA
ENE taberna
Kale Nagusia 35, Usurbil

BORDATXO
taberna
Pintxo Bereziak
943 37 10 42

URDAINTZI S.L.
Eraikuntzak
urdaintzi@euskalnet.net
IT-ak egiten dira
649 43 54 75
943 36 72 64
ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK

MERKATU TXIKIA

ETXEBIZITZAK

ALOKAIRUAN

Alokairuan hartzeko oztopo arkitektonikorik gabeko etxebizitza txiki edo estudio baten bila gabilta. Adin nagusiko bikote bat gara. 627184674
Lanerako gela bat eskaintzen da, zerbitzuetarako primeran: fisioterapia, masajista, psikologia etab. egokitua. Kokapena eta sarbide ona. 2020an berritua. 670 410 273.

Mutil batentzako pisu bila nabil. 622 925 562.

SALGAI

Izar-etxe beheko etxea salgai. 85 metro koadro inguru eta txokoa ditu. Informazio gehiago Elizalde inmobiliarian 943 35 35 34

MOTORRA

SALMENTA, GARAJEAK

Garaje itxia salgai herri sarreran. 646 601 947 (18:00etatik aurrera deitu).

IRAGARKIA JARTZEKO:

NOAUAIKO BULEGOTIK PASA

ERREDAKZIOA@NOAUA.EUS

943 360 321

Munalurra 4 zenbakian lokal bat daukagu alokatzeko. Telefono zenbakia: 652 765 583.

LANPOSTUAK

LAN ESKAINTZAK

Zerbitzaria behar dugu lanaldi osorako Kalezarko Matiaren zaintzadun etxebizitzan auzuneko kafetegirako. 670 654 272.

Umeak zaintzeko eskolako garaian, goizez edo arratsaldez. Usurbilgoa eta euskalduna naiz. 616 273 785.

- Asteleheneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- Iragarki berriak sartu ahala, zaharrak ezabatuko ditugu.
- NOAUAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

Astean pare bat arratsaldez adineko emakume bat zaintzeko pertsona baten bila nabil. 653 018 132.

Datorren ikasturtean haurrak eskolatik jaso eta etxera ekartzeko pertsona baten bila gabilta. 12:00-14:00, asteleheneetik ostiralera. Kotxea izatea eta euskara jakitea beharrezkoa izango da. 617792736

Laukote okindegian, astebukaeretan lanaldi erdiz aritzeko. 634 401 171

Aginaga sagardotegian, lanaldi osorako zerbitzaria behar da. Euskaraz

jakitea beharrezkoa da. 943 366 710

LANPOSTUAK

LAN ESKAERAK

Ikasturtean zehar haurrak zaintzeko prest nagoen gazte usurbildar bat naiz. Umeekin esperientzia daukat. Ordutegian malgutasuna daukat. 688805307

Sozio-sanitario titulua dut. Adinekoak zaintzeko prest, edozein txandatan. 611 72 79 74.

Orduka garbiketa-lanak egingo nitzuke. Garbiketa-lanak egiten esperientzia. 602 082 583.

BESTELAKOAK

Etxean egindako gozogintza enkarguz eskatu dezakezu @deliciascreativasdey / 624356763 (Deynis)

Paseoko bizikleta bat daukat salgai. Egoera oso onean dago. 644619358.

TELEFONO INTERESGARRIAK

Udala	943 371 951	Gure Pakea Egoitza	943 368 770
Atez ateko bulegoa	900 776 776	Gure Elkartea Egoitza	686 554 145
Udaltzaingoa	943 361 112	Arrate Zahar Egoitza	692 898 492
Sexu Aholkularitza Gunea	697 919 516	Salbatore Parrokia	943 361 239
Gizarte Zerbitzuak	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua	943 362 894
Bake Epaitegia	943 372 336	Anbulategia	943 362 013
Oiardo Kiroldegia	943 372 498	Amenabar botika	943 376 076
Sutegi Udal Liburutegia	943 360 692	Iturralde botika	943 363 395
Pobxoenea	943 371 999	DYA	943 464 622
Kzguna	943 023 684	Gurutze Gorria	943 272 222
Zumarte Musika Eskola	943 371 594	Emergentziak	112
Etumeta AEK euskaltegia	607 609 379	Genero-indarkeria, arreta	016
Kalezar Eguneko Zentroa	943 365 249	Gonzalez Ehorztetxea	943 362 163

GUARDIAKO FARMAZIAK

EGUNEZ

Osteguna, 13	ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte-Oria / 943 36 35 49
Ostirala, 14	URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte / 943 36 65 67
Larunbata, 15	ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte / 943 36 26 52
Igandea, 16	ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte / 943 36 26 52
Astelehena, 17	DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte / 943 37 11 51
Astearte, 18	ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte / 943 36 26 52
Asteazkena, 19	DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte / 943 37 11 51
Osteguna, 20	LASA SUQUIA Kale Nagusia 42. Lasarte / 943 36 17 74
Ostirala, 21	GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte / 943 36 07 08
Larunbata, 22	ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte-Oria / 943 36 35 49
Igandea, 23	ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte-Oria / 943 36 35 49

GAUEZ EGUNERO

(22:00etatik 09:00etara)

AIZPURU ODRIOZOLA, KARMELE: Latxunbe Berri, 11 Hernani 943 33 60 77

Gipuzkoako farmazien egutegia eskura izateko:

COF Gipuzkoa aplikazioa deskargatu Google Play-etik edo AppStore-etik.

ZORION AGURRAK



Zorionak June eta Areia! Areiak irailaren 9an 9 urte eta June hilaren 11n 13 urte beteko ditu. Zorionak eta muxu asko biontzat familiakoen partez!

HILDAKOAK



Pablo Moreno Ortueta
Abuztuaren 24an hil zen, 80 urterekin



Demetria Asensio Casado
Abuztuaren 12an hil zen, 102 urterekin



Luis Goenaga Aristondo
Abuztuaren 12an hil zen, 91 urterekin



Antxoni Azpiazu Ikutza
Abuztuaren 6an hil zen, 91 urterekin

Urte askotarako!

Zorion itzazu senitartekoak eta lagunak:

Posta elektronikoa

Mezua bidali erredakzioa@noaua.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

Bulegoa

Etor zaitetz gure bulegora edo telefonoz deitu: 943 360 321.

Oharra:

Asteleheneko 17:00ak arte jasotako zorion-agurrak bakarrik iragarriko ditugu.



Pilar Gomez Blazquez
Uztailaren 29an hil zen, 67 urterekin



Pako Alkorta Salsamendi
Uztailaren 27an hil zen, 75 urterekin

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTELEHEN EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

OSTIRALA 08

SANTUENEA Ikasturte hasierako ospakizuna

Haur jolasak eta afari merienda, musikarekin girotua.

18:00 Santueneko plazan eta inguruan (euria bada, frontoian).

LARUNBATA 09

USURBIL "Usurbil Museo Irekia" bisita gidatua

Izen-ematea: 3 eurotan (18 urtetik beherakoek doan). Informazio gehiago: 650usurbilbizi.eus
12:00-13:00 SuteGIN.

IGANDEA 10

USURBIL "Usurbil Museo Irekia" bisita gidatua

Izen-ematea: 3 eurotan (18 urtetik beherakoek doan). Informazio gehiago: 650usurbilbizi.eus
12:00-13:00 SuteGIN.

LARUNBATA 16

USURBIL "Usurbil Museo Irekia" bisita gidatua

Izen-ematea: 3 eurotan (18 urtetik beherakoek doan). Informazio gehiago: 650usurbilbizi.eus
12:00-13:00 SuteGIN.

Lehen fasean, Behar-Zana eta Kanboarrak izango dira zubietarren aurkariak.

Enrike Abril errebote txapelketa martxan da

Eguraldia traba ez bada, irailaren 17ra arte luzatuko da lehen fasea. Sei talde lehiatuko dira, bi multzotan banatuta. Zubietarrak B multzoan dira, Behar Zana eta Kanboarrak taldeekin batera.

2. jardunaldia
Irailak 10, igandea

10:30 Oiartzunen: Luzean-Txost.
10:30 Villabonako plazan: Kanboarrak-Behar Zana.

3. jardunaldia
Irailak 17, igandea
10:30 Zubietako plazan: Zubietarra-Kanboarrak.
10:30 Oiartzungo plazan: Kapitono Harri-Luzean.

Gaztetxoentzako festa Santuenean

Ikasturte hasierako ospakizuna iragarri dute Santuenean: haur jolasak eta ikasturte hasierako afari-merienda, musikarekin girotuta. Ostiral honetan, arratsaldeko 18:00etatik aurrera plazan eta inguruan. Euria bada, auzoko frontoian egingo dituzte ekitaldiak. Antolatzailea: Santuenea K.E.Laguntzailea: Udala.

Irigaingo aztarnategiko indusketa arkeologikoak

Aranzadi zientzia elkarte eta bere boluntario taldea indusketa lanetan ari dira Andatza inguruetan. Uda garaian, bi eremuotan: Andatza II eta Irigaingo aztarnategian. Usurbilgo Udaletik jakinarazi dutenez, Andatza II inguruko trikuharrian aritu dira azken asteotan eta indusketa lanak amaitutzat jo dituzte. "Trikuharria Neolito-Brontze arokoa, 15 metroko diametroa eta 1,8 metroko altuera dituen".

Boluntarioak behar dira

Irailean eta urrian "erromatar garaiko Irigaingo aztarnategian" jardungo dira. "Erromatar garaiko bititoki bat dago bertan". Auzolan honetan parte hartu nahi duenak, izena emateko aukera du oraindik, iquevedo@aranzadi.eus helbidera idatziz.

ARRANDEGIA
PELLO
9:00-13:30
ASTEARTETIK LARUNBATERA
PUNTAPAX 7, 650 31 31 91

USURBIL DÖNER KEBAB
843 675 265
603 609 183
USURBIL DÖNER KEBAB USURBIL_DK
Borda Berri Kalea, 5

Inaki Iturgintza
BEROKUNTZA • GASA • AIRE EGOKITUA • ZORU BERO-EMAILEA
ITURGINTZA • ENERGIA BERRITAGARRIAK
info@inakiiturgintza.com - www.inakiiturgintza.com
600 024 825

ZALDIGAIN
ERREMENTARIA
• Burnia, inox, altzairua eta corten altzairuarekin lan egiten dugu.
• Barandilak, balkoiak, eskailera dekoratiboak, solairuak....
www.zaldigain.com • info@zaldigain.com
Tfno. 943593303 • Mugikorra: 677463867

Abuztuaren 28tik aurrera

ORDAINDU
GERTU

TXARTELAREKIN
ETA AURREZTU

%10

**EROSKETA
GUZTIETAN**

Gehienez **10 euroko**
deskontua erosketa
bakoitzeko



XUMETIK

HERRI JAIALDIA IRAILAK 23

